



ZARAUZKO IKASTOLA  
ESKOLA-KIROLA 2020/2021

5.- SAIOA

- **BEHARREZKO MATERIALA:** Bi zapi partaideko (bata kolore argia, bestea iluna) eta bi baloi. **(etxetik ekartzeko esan).** Klera Hodeiek emango dizue.

BEROKETA

“kateka” [10 min]

- Kateka harrapaketa jolasera jolastuko gara. Haur denek dakite jolasten jolas honetara. Bi modalitate ditugu, “kate luzea” eta “kate motza”. Bietara jolastu gaitzke. *(jolasa ezagutzen dute. Izena esanda soilik badakite zer egin behar duten)*


ATAL NAGUSIA

“Azeri buztana” [15-20 min]

- Taldekide bakoitzak zapia buztan bezala jarriko du galtzetan sartuta, zapiaren zati handiena zintzilik eta bistan dagoelarik. Begiraleak hasiera ematean, denek denen kontra arituko dira, elkarri buztanak lapurtzen. Buztanik gabe geratzen dena, lurrean eseriko da eta berriz korrika hasi ahal izateko bi aukera izango ditu: norbaitek soberan duen buztanen bat opari jasotzea edo lurrean dagoela ondotik pasatzen den lagun bati buztana lapurtzea. *(jolasa ezagutzen dute. Izena esanda soilik badakite zer egin behar duten)*

**Errelebo jolasa: “Hiruko artzain jokoa” [15 min]**

Errelebo jolasa da. Taldeak zelaiaren alde batean jarriko dira, bi taldeko taula bana marraztuko diegu klarionaz zelaiaren beste aldean (ikusi beheko irudia). Talde batek zapi ilunak izango ditu eta besteak argiak. Talde bakoitzak 3 zapi. Begiraleak hasiera ematean, talde bakoitzeko lehena, korrika aterako da eta bere taulan zapi bat utziko du. Ondoren bere ilarara itzuli, txanda eman lagunari eta hura aterako da korrika eta bere zapia jarriko du. Hirugarrenak ere gauza bera egingo du. Laugarrenaren kasuan, zapi gabe joango da korrika bere taularaino eta aurrez bere taldekideek jarritako zapi bat lekuz mugitu beharko du, inork 3 linean jartzea lortu arte. Aldiro taldekideak aldatzen joan gaitzke denek denekin jolasteko. <https://www.youtube.com/watch?v=HhQ2gbnpmtw>



**Atsedenaldia ura edateko [3-4 minutu]**

### **Zapi zapi [15min]**

- Talde osoa bitan (asko bagara, 4 talde ere egin ditzakegu eta bi zapirekin jolastu) banatuta zapi zapira jolastuko gara. Zenbakiak, eragiketak, 2 edo 3 zenbaki elkarrekin esan eta haien artean moldatu beharra,... aldagaiak sartu jolasari dinamika emateko. 5 eta 6.mailakoekin, jolasa zailtzeko, zapiaren bila joan beharreko korrikaldia baloiarekin egitera ere animatu ditzakegu. Taldeko baloi bana eman eta zenbakia esan orduko baloiaz egin behar dute ibilbidea.

### **Lasaitze fasea: “zapi petanka” [5 min]**

- Lurrean 3-4 zirkulu marraztuko ditugu. Bata bestearen barruan eta bakoitzari zenbaki bat jarritz (diana moduko bat egiten). Borobil txikienari 4, bera inguratzen duen bigarren borobilari 3, hirugarrenari 2 eta handienari 1 adibidez. Jokalariek zapiak nondik jaurti behar dituzten markatuko dugu marra bat marraztuz eta txandaka hasiko dira taldekideak zapiak jaurtitzen. Partaide guztiek botatzean puntuak batu eta ea zein taldek atera dituen puntu gehiago. *(Ez diegu emango zapia hobeto botatzeko tolestea edo antzerako pistarik. Haiek erabili dezatela burua)*